

GUGGENHEIMEN AKORDIO BERRIA

Gasolina garestiago titaniozko barkuarentzat

Jendaurrean aurkeztu zenetik bi hilabete pasa dira, eta orduan irakurri ahal izan da zer sinatu zuten datozen hogeitau urteetarako kudeaketa akordioan euskal erakundeek eta Guggenheim fundazioak. Bilboko museoarentzat zenbait onura ekarri ditu testu berriak, baita bertako instituzioek diru gehiago jarri beharra ere. Akordioaren gakoak aztertu ditugu.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |

FERRARI batekin konparatu zuen Bilboko Guggenheim museoa Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldun nagusiak. Eta Ferrari batek, korri egingo badu, gasolina behar duela erantsi zuen. Arte-espazio batek gastatzen duen erregaia sormena dela pentsatzen baldin baduzu, ez, ez zen horri buruz ari. Diruaz ari zen, Bilboko itsasontzi titanikoaren finantzazioaz.

2014ko abenduaren 3a da, flash eta gorbata eguna Bilbon: museoaren aginte organoan dauden erakundeen ordezkariak –Bilbao, Aldundiaren izenean, eta Iñigo Urkullu, Eusko Jaurlaritzarenean– irribarretsu agertu dira pinakotekako zuzendari Juan Ignacio Vidarterekin eta Richard Armstrong Solomon R. Guggenheim Fundazio-ko zuzendariarekin. Akordio inportanteari autografoa jarri berri diote, hogeitau urterako berri dute euskal instituzioen konpromisoa New Yorkeko zentralarekin.

Baina zer sinatu den ez da inondik ageri. Orain arteko finantzazioari buruzko daturik ere ez: kazetariak galdetu dutenean zenbat diru eman dioten euskal erakundeek Solomon R. Guggenheim Fundazioari 1994ko kudeaketa akordiotik hona, jarritakoa aise berreskuratu dela esplikatu da, inbertsio arrakastatsua izan dela, baina prezio justurik ez.

2015eko otsailean jakin da, azkenik, hitzarmenak letraz letra dioena, korapiloren bat askatu ondoren: Vicente Reyes PSE-EEko

legebiltzarkideak eskatu zuen; hasieran ezetz erantzun zion Jaurlaritzak; eta parlamentuko mahaiaren bitartekaritzarekin eskuratu dute taldeek dokumentuaren kopia, paperean. Atzerapena zergatik? Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailburuak azaldu du otsailaren 6an: akordioa New Yorken berretsi gabe zegoelako, bere esanetan.

Zenbat euro dira 2,4 milioi dolar?

Agertzea kostatzen zaien dokumentuak gorabehera, kudeaketa akordioak zenbaki batzuk utzi ditu agerian, bai orain adostu direnak, bai 2014ra arte New Yorkeko fundazioari eman zaizkionak. Diru kontuetan Bilbo galtzen atera da: euskal instituzioek batez beste 1,7 milioi euro eman izan dizkiote urtero New Yorkeko espiral formako etxeari 1997tik. Aldizkari honek lortu duen dokumentuan irakurtzen denez, aurrerantzean 2,4 milioi dolar eman beharko dizkiote –2.109.982 euro, lerrook idazterakoan bi monetek duten trukearen arabera–.

Zergatik sinatu den akordioa dolarretan eta ez eurotan? Arrazoietakoa bat izan liteke AEBetako dirua egonkorragoa dela, Baleren Bakaikoa EHUKo Ekonomia Aplikatuko katedradunak azaldu duenez. “Azken hilabeteetan euroa izugarri depreziatzen ari da dollarraren aldean. Eta Europako egoera kon-tuan hartuta, dollarrak berme handiagoa eman du”. Bi monetan arteko borrokan AEBE-

New Yorkeko fundazioari orain arte 1,7 milioi euro eman dizkiote euskal erakundeek urtero batez beste. Datozen 20 urteetan 2,1 milioi izango dira

MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS



Flash eta gorbata eguna izan zen iazko abenduaren 3a Bilbon. Euskal instituzioek eta Solomon R. Guggenheim Fundazioak datozen 20 urteetarako akordioa sinatu zuten. Argazkian Juan Ignacio Vidarte, Jose Luis Bilbao, Iñigo Urkullu eta Richard Armstrong. Orduan hitzartutako testua ez da otsailera arte eskuratu ahal izan.

takoa garaile ateratzen ari baldin bada, Ferrariak euskal erakundeetatik edango duen gasolinaren prezioa dibisa geroz eta garestiagoaren arabera finkatuko al da? Ekonomiak 20 urtean izan ditzakeen gorabeherak aurreikus-tea zaila da, baina momentuz, hala dirudi.

Ez da diru-ekarpenen atalak daukan iltze bakarra: akordioaren 7. klausulan, zenbat diru eta zein dibisatan zehazteaz gain, kopuru horren “eguneraketa” ere aurreikusten da: AEBetako CPI-U indizearen arabera egingo da, alegia, Estatu Batuetako inflazioak euskal instituzioen ekarpena baldintzatuko du. Zenbat eta garestiago bizimodua AEBetan, orduan eta sos gehiago Euskal Herritik New Yorkera.

Frankizia baino gehiago?

Apustua orain arteko errentagarritasunarekin justifikatzen da. Museoak maila sozial eta kulturean ekarri duenarekin, baina, batez ere, ekonomikoki izan duen inpaktuarekin. Argudio hori erabili zuen Uriartek Legebiltzarreko kultura batzordean, kudeaketa akordio berriaren lau zutabeak esplikatzarekin bate-

ra: oreka, egonkortasuna, Bilbo eta New Yorken arteko kolaborazioan sakontzea eta parlamentuak emandako aholkuen errespetua.


Aitortu zuen Bilboko Guggenheimek etxe nagusiaren “frankizia” itxura daukala 1994ko akordioa irakurriz gero. “Une hartan ez zegoen gauzak bikaintasunez egingo ziren bermerik amerikarrentzat”, azaldu zuen, baina orain

baietz, lortu dela, eta “menpekotasunetik elkarlanera” pasa direla sinatzaileak. Uriartek esplikatu zuenez, aurreko akordioan idatzia zegoen Solomon R. Guggenheim Fundazioak Bilboko museoa kudeatuko zuela; berriak aldiz, zeregin hori Bilboko museoaren fundazioaren esku geratuko dela dio. Eta antzeko ardura-aldaketak egin

dira edukien garapena, aurrekontuen diseinua eta tankerako gaietan.

Baliteke Bilbok frankizia itxura gainetik kentzea, baina edukiei erreparatuz gero, eskuak lotuta dituen bezero baten antza du oraindik hitzarmen berrian. Euskal erakundeek ordainduko dituzte museoaren “kapital-behar eta funtzionamendu nahiz kudeaketa gastu guztiak”, egoitzaren mantenua eta lan-

Dolarretan hitzartu da akordioaren alderdi ekonomikoa: euroaren aldean garestitzen ari den moneta izanda, baliteke urtetik urtera gehiago ordaindu behar izatea



FERNANDO PASCULLO (CC-BY)

Akordioarekin Bilboko museoak autonomia irabazi du, baina bezero-hornitzaile harremanak bere horretan jarraitzen du.

gileen soldatak barne. New Yorkeko Fundazioak nagusiki programazio proposamenak eta marka jartzen ditu: urtero aurkeztuko dio aldi baterako erakusketen plan bat Bilbori, honek menuko eskaintzaren artean aukeratu dezan. Eta behin aukeratuta eta New Yorkek aurrekontua bidalita, Bilbok pagatuko du.

Akordioak ez du agintzen Guggenheim Fundazioari zenbat erakusketa kontratatu behar zaizkion, hori aurten berrikusteko den beste dokumentu batean zedarrituko da, Programazio Artistikoaren Aitorpenean. Alor horretan autonomia handiagoa lortzea zaila izango dela dirudi ordea, Gehryren erai-kin barruko funtzionamendu politika “Guggenheim markari lotutako museo bati eska dakioken kalitate mailaren eta zerbitzuen araberakoa” izango dela sinatu ondoren. Izan ere, nork esan dezake Guggenheim izenari dagokion nibela zein den, Solomon R. Guggenheim Fundazioaz aparte?

Bilbao-New York-Helsinki... Urdaibai?

Etorkizunean Europan zabalduko diren Guggenheim sareko museo berrien afera ere itxi dute abenduan. Gaiak titular polemiko batzuk utzi zituen 2011. urtean, orduan Jaurlaritzako Kultura sailburu zen Blanca Urgellek publikoki New Yorkeko fundazioari “leialtasuna” eskatu zionean. Helsinkin Guggenheim berri bat zabaltzeko asmoak probokatu zuen eztabaida. Horrelako erabaki batek Bilboko museoaren Europako eskusibotasuna arriskuan jarriko ote zuen galdezka tinta dezente gastatu zen. Gainera, plan horren berri prentsaren bidez izan zuen Urgellek, ondoren Lehendakaritzak informata zegoela adierazi arren.

2012an argitu zen euskal erakundeen jarra: Helsinkiri bai, baina bi baldintzarekin.

Urdaibaiko Guggenheim egiteko atea zabalik uzten du hitzarmenak, nahiz eta momentuz proiektua geldirik dagoen

Batetik, Bilborentzat autonomia handiagoa –hitzarmen berriko hainbat puntutan islatzen dena–; eta bestetik, Europara ekarriko diren erakusketak Euskal Herrian estreinatzea. Datozen hogeituardeko akordioaren arabera, Solomon R. Guggenheim Fundazioak Bilborekin kontsultatu beharko du beste edozein museo zuzentzeko edo kudeatzeko konpromisorik hartu aurretik, Finlandiako hiriburukoaren salbuespenarekin. Beste hainbeste egin beharko luke Bilboko Guggenheimek New Yorkekin, museo berriren bat martxan jarri nahi balu. Salbuespen batekin hemen ere.

Leku-izenik jarri nahi izan ez dioten arren, akordioak atek zabalik uzten ditu Urdaibaiko Guggenheim bezalako proiektu bat garatzeko, “hedapen eteneko proiektu” gisa. “Bisualki adierazgarria den paisaia batean” garatuko litzateke museo berria, “Bilbotik kanpo, nahiz eta hiritik urrun ez egon”. Pista gehiago behar dituenarentzat: “Kokapen ikoniko batean, nortasun berezia duen lekuan” egingo litzateke; eta, publizitate katalogoko hizkeran esplikata, “arte-, natura- eta paisaia-konbinazio bikaina” eskainiko luke “esperientzia berezi batean”.

Iazko ekainean deitu zen Helsinkiko museoa eraikitzen hasteko lehiaketa arkitektonikoa, New Yorkeko fundazioak historian konbokatu duen lehenbizikoa; eta aurtengo ekainean jakingo da zein den proiektu irabazlea. Urdaibaikoaren martxa ez dago hain argi. Cristina Uriartek berak aitortu zuen sailburu izendatu eta hilabete gutxira: plana *standby* dago, egoera ekonomikoa hobetzeko zain. Edonola, Jaurlaritzak eta Aldundiak etorkizunean karta hori jokatzeko modua egin dute abenduan adostutakoarekin. ■